

ERMUKO ELEIZA

GAUR

Kristau Alkartearen batzar lekua, argazkian daukazuena, Ermuko eleiza da. Aintzina, orain dala urte asko, gehien baten baserriekaz inguratuta zegoan Eleiza honen jirabiran hasiko zan Ermuko herri txikia. Guztiok badakigu, zelako izan diran gure herrian arrezkerok, bai jende, bai industria aldetik eta zer esanik ez, merkataritza zein kultura aldetik.

Ermuko Eleizak zaindari lez Santiago apostolua dauka. Eleiza bera lehen lehen-goia eta lehen-go lekuan finkatuta dago. Eleiztarren laguntzari esker, barriztapen batzu be izan ditu, bai barrukaldetik, bai kanpokaldetik. Orain dala denbora gitxi, teilatua barria jarri jako eta kasu honetan be gure eleiztarrek ondo baino hobeto erantzun dabe eta erantzuten dihardue,

euren esku zabalasunagaz alkartasunezko ikasbide ona emonez.

Baina ez gara geratuko irudi onekaz bakarrik. Eleiza ez dabe egiten lau ormak bakarrik; Kristau alkarreak osatzen daben talde biziduna da Eleiza. Jesusek berak esan eban: «Bi edo hiru nire izenean alkartzen zareen lekuan, hantxe izango nauzue ni».

Zelan jokutzen dau, gaur egun, gure kristau alkarreak barrutik? Horixe da hain zuzen be, ahal danik eta argien, azaltzea nahi gendukena...

Gaur egun, Mallabi, Sallabente, Ongarai eta Santiago Parrokiko kristauen zerbitzurako lau abade bakarrik daukaguz eta eurentariko bat jubilatua. Ikusten dozuenez, lantoki ugari eta langile gitxi.

Ermuko kristauei jagotsen aldetik, hiru motatakoak aipatu geinkez: Batzu euren etxekoan arteko bataioak, lehen jaunartzeak, ezkontzak edo hileta ospakizunak dirala ta, bakar bakarrik Eleizara urratzen diranak. Beste batzu, jaiero urratzen dira Eleizara Eukaristian parte hartzera eta euron artean badira egunero urratzen diranak be. Parrokiko gastuekin be arduratzen dira eta gehienak ondo erantzuten deutze zeregin honi. Azkenez, badoguz beste mota bateko kristauak, hain zuzen hiurugarren motatakoak, Eleizari buruzko zereginetan parte hartzen dabenak, euren sinesmena sendotu eta, talde batzuen bidez, Eleiz lanean diharduenak. Eleizkizun lanean dabiltzan taldeetako ordezkariekin «Pastoral kontseilua» osatzen da. Zeregin hau zuzendu eta aurrera eroateko hogeitatu lagun dira aukeratuta dagozanak: Abade

bat, gidari lez; Sektoreko ordezkaria; eskontzaurrekoen ordezkari lez dagoan idazkari bat; katekesisko ordezkari bi; gazteen ordezkari bi; karitasko ordezkari bat; osasun pastoraleko ordezkari bi; bataio aurreko ordezkari bat; gau gurtzailen ordezkari bat; Fede eta Zuzentasun taldeko ordezkari bat; liturgiako ordezkari bat; Ekonomia Batzarreko ordezkari bat; San Lorenzo Parrokiko ordezkari bat; ordezkari bat; Ongarai kaperatik ordezkari bi; eta azkenez, Santiagoko Parrokitik beste bi.

Honen guztion artetik, botoaren bidez, zazpi lagunek osatzen daben batzar iraunkorra aukeratuta dago. Batzar iraunkor hau hilean behin alkartzen da eta Batzar Nagusia hile bitik behin. Beharizanik sortuz gero, sarriagotan be alkartzen dira. Batzar honetan Gotzaindegitik datozen arauak eta jaraibideak era-

biltzen dira, baita Parrokiei jagotzezan gaiak, batez be, Batzar Nagusiari jagotzezanak eta abar... Era berean, gure Kristau Alkarteari jagotzezan arazoak eztabaiatu eta ondoriozko erabagiak hartzen dira.

Horrez gaineratik, lanean diharduen beste talde batzu be badoguz gure Eleizbarrutian, nahiz eta oraindino Pastoral kontseiluan ordezkariarik euki ez.

Hurrengo ekinaldian, talde bakoitza aurkeztuko dautzuegu, euren behar eta funtzionamenduagaz. Laster arte: Santiago jai zoriontsuak opa deutzuegu bihotz bihotzez.

ERMUKO PARROKIKO PASTORAL KONTSEILUA



Bi edo hiru nire izenean biltzen direnean, hantxe be ni bilduta nago.



Eguneroko zerbitzua:

ERMUA, EIBAR, MALLABIA,
ZALDIBAR, BERRIZ, BILBO

Zama guztientzako eskualdeko zerbitzua

ERANDIO GARRAIOAK

Bulegoa: Zeharkalea 27, Tlf.:943-170314 -ERMUA